## norbera

## galderak

- Zein artelanek eraman zaitu gehien hausnar egitera, eta zeri buruz? Zeinek sentiarazi dizu gehien? Eta gozarazi?
- Zein artelan aterako zenuke kalera, eta zergatik?
- Zeren omenez egingo zenuke minutu bateko isilaldia?
- Komisarioak MUGAren gaiarekin harremandu du Taxio Ardanazen lana. Zein beste kontzepturekin lotuko zenuke?
- Zer aldatuko zenuke zure inguruan, *Google Maps* aplikazioaren airetiko ikuspegian antzeman dadin? Zein asmorekin?

## hitza

- Idatzi ZERUA hitzaren definizioa, *One second of silence* artelanak iradoki dizuna oinarri hartuta.
- Idatzi Jason Glasserren lanak iradokitzen dizkizun bost sentsazio (usainak, zaporeak, soinuak...), eta idatzi poema edo testu labur bat.
- Imajina ezazu ikus-entzunezko Real *Remmants of Fictive War V* piezaren plano barruan zaudela. Idatzi ezazu wasap, tuit edo testu-mezuren bat lagunen bati, zer gertatzen ari den kontatzeko (ikusten edo entzuten duzuna, etab.).




# MAPAMUNDISTAS

**El diccionario**
**Hiztegia**

## norbera

## norbera

PROIEKTUA:
www.bitartean.org

LAGUNTZAILEAK:
Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala
FUNDACIÓN CAJANAVARRA

## plastika

- Sor ezazu argazki bat artelanetako batean nolabait nahastuta: harekin mimetizatuta, hura desitxuratuz, harekin esku hartuz, hura osatuz...
- Marraztu ezazu zeure burua zure gainean zelatan dagoen zaintza-kamera batek iruditan hartuko bazintuzke bezala.
- Begiratu egunkariak, eta hautatu ezazu egungo gatazka sozial edo politikoren bat irudikatzen duen irudi bat. Irudi horrekin, sor ezazu collage bat KONKISTA izenpean. Horretarako, nahi duzuna egin dezakezu irudiarekin: margotu, hautsi, ebaki, osatu, nahastu beste batzuekin...

## norbera

## norbera

## gorputza

- Sor ezazu erritmo-ibilbide bat zure gorputzarekin (mugimenduarekin edo soinuekin), *Distant Land* artelanari laguntzeko
- Taxio Ardanazen performancearen arrastoak MUGA adierazi nahi du. Zure gorputzaren laguntzarekin, saia zaitez muga adierazten, erakusketaren espazioan nonbait.




# MAPAMUNDISTAS

El diccionario
Hiztegia

## proposamena

Dinamikak egin eta gero, bizi izandako esperientzia eta, agian, argazkiren bat geratuko zaizkizu. Proposamen bat egingo dizugu: partekatu esperientzia honen ondorioak sare sozialetan, **#cadacualmapamundistas** traola erabiliz.

LG NA 1803-2016